**AKTA 43** | **ACTA 43**
**2022KO URRIAK 25** | **25 DE OCTUBRE DE 2022**

| | |
|---|---|
| **ORGANOA:** | Udalbatzar Txit Garaia |
| **ÓRGANO:** | Excmo. Ayuntamiento Pleno |
| **BATZARRALDIA:** | Ohiz kanpokoa |
| **SESIÓN:** | Extraordinaria |
| **TOKIA:** | Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa |
| **LUGAR:** | Salón de Plenos de la Casa Consistorial |
| **EGUNA:** | 2022ko urriak 25 |
| **FECHA:** | 25 de octubre de 2022 |
| **HASIERA ORDUA:** | 09:30 |
| **HORA DE COMIENZO**: | 09:30 h |
| **LEHENDAKARIA:** | Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea. |
| **PRESIDE:** | Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián. |

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Doña Miren Nekane Arzallus Iturriza andrea *(arratsaldeko saioan ez / no en la sesión de tarde)*
Doña Marisol Garmendia Beloqui andrea
Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores/as concejales/as:
Doña Pilar Arana Pérez andrea
Doña Aitziber San Román Abete andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Don Jon Insausti Maisterrena jauna
Doña Mª. Jesús Idoeta Madariaga andrea
Doña Miren Jaione Hervás Sáez de Arregi andrea
Don Kerman Orbegozo Uribe jauna
Doña Reyes Carrere Zabala andrea
Don Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutaran Ferré jauna
Doña Garbiñe Alkiza López de Samaniego andrea *(arratsaldeko saioan ez / no en la sesión de tarde)*
Don Zigor Etxeburua Urbizu jauna
Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna

Doña Cristina Lagé Manich andrea
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Don Borja Corominas Fisas jauna
Don Mikel Lezama Zubeldia jauna
Don Jorge Mota Iglesias jauna
Doña Aitzole Araneta Zinkunegi andrea *(17:42 arte / hasta las 17:42 h.)*
Doña Marta Huarte Paño andrea *(11:40tik aurrera / a partir de las 11:40 h.)*

**EZ DIRA ETORRI:** Alkateorde jauna:
**NO ASISTEN:** El señor Teniente de Alcalde:
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna

**IDAZKARIA:** Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.

**SECRETARIO:** Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

---------------


| LABURPENA | Zk/ Nº | SUMARIO | Pág Orr. |
|---|---|---|---|
| Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena. | | Declaración anual de política general. | 2 |


---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN EZOHIKO OSOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena.**

**Declaración anual de política general.**

Alkate-Udalburuak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el Sr. Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**10:55etan, 20 minutuko atsedenaldia egin da eta 11:15etan berriro hasi da.**

**RECESO**

**Siendo las 10:55 h, se suspende la sesión por 20 minutos y se reanuda la misma, siendo las 11:15 h.**

---------------

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jon Insausti Maisterrena y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**13:58an eten egin da saioaren bigarren zatia, eta 17:00etan berriro hasi da.**

**RECESO**

**Siendo las 13:58 h se suspende la segunda parte de la sesión y se reanuda la misma, siendo las 17:00 h.**

---------------

**TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN INGURUKO EZTABAIDA.**

**DEBATE SOBRE LAS PROPUESTAS PRESENTADAS POR LOS PARTIDOS.**

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Ane Oyarbide Ochoa D.ª Reyes Carrere Zabala y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**1. Elkarrekin Donostia Taldeak etxebizitza eskuratzeko sustapenari buruz aurkeztutako ebazpen-proposamena.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen baba aintzakotzat hartu eta Donostian etxebizitza eskuratzea sustatzearen gaineko ebazpen proposamen hau egin du, Osoko Bilkuran aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitzak oso prezio garestia izatea dela eta etxebizitza eskuratzea zail izatea da donostiarren arazorik handienetako bat. Eta, urtea joan eta urtea etorri, geroz eta handiagoa da arazo hori.

Bereziki gazteei erasaten die. Izan ere, Donostiako gazte askok, lana izanda ere, emantzipatzeko modurik ez izateraino iritsi gara. Ezta bikote gazte bateko bi soldatak batuta ere, askotan.

Horren guztiaren ondorioz, gure hiriko gazte gehienentzat ezinezkoa da beren bizi-

**1. Propuesta de resolución presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia sobre la promoción del acceso a la vivienda.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Propuesta de Resolución para su tratamiento en Pleno, sobre la promoción del acceso a la vivienda en Donostia.

JUSTIFICACIÓN

Las dificultades en el acceso a la vivienda derivadas principalmente de los altísimos precios de esta son uno de los principales problemas que sufren los habitantes de esta ciudad. Este es un problema que no ha dejado de acrecentarse año a año.

Esto afecta especialmente a los jóvenes. Hemos llegado a una situación en esta ciudad en la que muchos jóvenes, ni siquiera teniendo un empleo pueden permitirse emanciparse. En muchos casos ni siquiera sumando los dos sueldos de una pareja joven.

Todo esto hace que para gran parte de los jóvenes de nuestra ciudad les sea imposible

proiektua hazi diren auzoetan eratzea; eta, hala, askok eta askok, Donostia utzi eta inguruko herriren batera joan beste erremediorik ez du emantzipatu eta bere bizi-proiektua izango badu.

Iaz Etxebizitza Legearen aurreproiektua onartu zuen Ministroen Kontseiluak. Estreinako aldia da horrelako aurreproiektua onartzen dena, eta oraindik ez ditu Legebiltzarrean behin betiko onartzeko egin behar dituen izapide guztiak egin. Proiektu horrek duen asmoa hiri askotan etxebizitza eskuratzeko den arazo gero eta handiagoa konpontzen saiatzea da. Euskadin bada etxebizitzari buruzko lege bat: 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legea, Etxebizitzari buruzko lege berria. Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen du, eta etxebizitzak duen funtzio soziala betetzeko ekintza batzuk ere badakartza.

Donostia dugu estatu osoan etxebizitza eskuratzeko arazoak gehien erasandako hirietako bat, eta ezinbestekoa da eskura ditugun tresna guztiak erabiltzea jende askok etxebizitza eskuratzekoan dituen arazoei aurre egiteko.

Horiek horrela direla, hauxe da Elkarrekin Donostiaren udal taldeak dakarren ebazpen proposamena, Udalbatzan azter dadin:

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Udalbatzak Estatuko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die ahalik eta azkarren garatzeko etxebizitza alokatzeko prezioak erregulatzeko izan behar diren arau tresnak, etxebizitza izateko eskubide subjektiboa bermatu ahal izateko.

conformar un proyecto de vida en los barrios en los que se han criado. En muchos casos estos jóvenes donostiarras se ven forzados a dejar la ciudad y mudarse a municipios cercanos para poder emanciparse y tener un proyecto de vida propio.

El año pasado, el Consejo de Ministros aprobó por primera vez un anteproyecto de ley de vivienda que todavía está pendiente de pasar todo el trámite parlamentario antes de aprobarse definitivamente, con la intención de tratar de solucionar la problemática cada vez más creciente de muchas ciudades en cuanto al acceso a la vivienda. En Euskadi ya existe una Ley Vasca de Vivienda, la nueva Ley de Vivienda 3/2015, de 18 de junio, que reconoce el derecho subjetivo a la vivienda y contempla actuaciones para que esta deba cumplir su función social.

En Donostia, una de las ciudades de todo el estado afectadas de manera más grave por esta problemática del acceso a la vivienda, es imprescindible utilizar todas las herramientas a nuestro alcance para atajar los problemas que sufre mucha gente a la hora de acceder a una vivienda.

Por todo ello el grupo Elkarrekin Donostia presenta para ser debatida en el Pleno la siguiente:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Ayuntamiento Pleno insta tanto al Gobierno del Estado como al Gobierno Vasco a desarrollar a la mayor brevedad los instrumentos normativos necesarios para regular los precios de los alquileres de las viviendas como instrumento para poder garantizar el derecho subjetivo a la vivienda.

2. Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta azkarren garatzeko 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legea, Etxebizitzarena, legeak dituen aukera guztiak erabili ahal izateko etxebizitza izateko eskubide subjektiboa betetzeko.

3. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzeko etxebizitza-politikak sustatzeko, bizi-proiektua Donostian moldatzeko bidea izan dezaten gazteek.

4. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak dakartzan aukera guztiak erabiltzeko, etxebizitza hutsik ez izateko gure hirian eta legeak berak jartzen duen helburu soziala betetzeko etxebizitzak.

5. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio gainditzeko legeak etxebizitza babestu aldetik jartzen dituen gutxienekoak, etxebizitza babestu gehiago izan dezagun Donostian.

Donostia, 2022ko urriaren 25a

Izpta.: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea".

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Vasco a desarrollar a la mayor brevedad la ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda al objeto de utilizar todas las posibilidades que la ley contempla al objeto de cumplir con el derecho subjetivo a la vivienda.

3. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a promover políticas de vivienda destinadas a favorecer el acceso a la vivienda a los jóvenes para que puedan conformar su proyecto de vida en Donostia.

4. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a utilizar todas las posibilidades de la Ley 3/2015, de vivienda de Euskadi, para impedir que haya viviendas vacías en la ciudad, y éstas cumplan con el fin social establecido en la propia ley.

5. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a superar los mínimos legales de vivienda protegida, con el objetivo de aumentar el número de viviendas protegidas en la ciudad.

Donostia, 25 de octubre de 2022

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA,**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO EN SEGUNDA VOTACIÓN**

ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.
VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.
VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

1. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.
ABSTENCIONES: 0.

1. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

1. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA, ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.
VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO EN SEGUNDA VOTACIÓN POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.
VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

**1. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA PROPUESTA N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA, ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO EN SEGUNDA VOTACIÓN POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**2. Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena, aniztasun sexuala baloratu eta errespetatuko duen Donostiaren alde.**

“Aitzole Aranetak, Elkarrekin Donostia Udal Taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua oinarri, Ebazpen Proposamen hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, SEXU-ANIZTASUNA BALORATU ETA ERRESPETATUKO DUEN DONOSTIA BAT defendatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

LGTBI komunitateek, bereziki transek, urria aldarrikapen-hilabetetzat eta beren eskubideak zabaltzeko borroka-hilabetetzat hartzen dute. Urriko hirugarren larunbatean Trans Despatologizazioaren Aldeko Nazioarteko Eguna izango da. 2019ko abenduan, eratzekoa zen koalizioko estatuko gobernuak koalizioko akordio progresistari lotu zion bere konpromisoa, eta hitzeman zuen “lege bat emango (zuela), eremu guztietan trans pertsonen kontrako

**2. Propuesta de resolución presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia por una Donostia que valore y respete la diversidad sexual.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Propuesta de Resolución para su tratamiento en Pleno, sobre UNA DONOSTIA QUE VALORE Y RESPETE LA DIVERSIDAD SEXUAL.

JUSTIFICACIÓN

Las comunicades LGTBI, especialmente las trans, consideran octubre como un mes reivindicativo y de lucha para ampliar sus propios derechos. El tercer sábado de este mes de octubre se celebra el Día Internacional por la Acción de la Despatologización Trans. Cuando en diciembre de 2019 el futuro gobierno de coalición estatal estrechaba su compromiso en base al acuerdo de coalición progresista y se comprometían a elaborar "una ley trans que trabaje de forma efectiva para erradicar todas

diskriminazio-mota guztiak errotik kentzeko lan eraginkorra egingo zuena". Orduan, ia ezinezkoa zen aurreikustea ia hiru urte geroago Urria Trans erreibindikatzeak esanahi berezia izango zuela.

las formas de discriminación hacia las personas trans en todos los ámbitos", era imposible de prever que casi tres años después tuviera un especial sentido reivindicar el Octubre Trans.

Estatuan eta Europan diskurtso ultrakontserbadoreak eta eskuin muturrekoak gora egiten ari diren testuinguru honetan, borroka feministari eta sexu-aniztasunaren alde mobilizatzen direnen borrokari esker lortutako eskubideak arriskuan daudela ikusten ari gara.

En un contexto en el que en el Estado y en Europa están creciendo los discursos ultraconservadores y de la extrema derecha, estamos viendo como peligran los derechos conseguidos gracias a la lucha feminista y de quienes se movilizan por la diversidad sexual.

Administrazio publikoek zeregin garrantzitsua dugu, ez bakarrik minorizatuta dagoen jendetzaren prebentzioan eta defentsan, baita berdintasunaren eta inklusioaren balioak babesteko eta sustatzeko lanean ere. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela, Udalbatza osatzen dugun indarren arteko desberdintasun ideologikoak eta estrategiak alde batera utzita, denok konpromisoa hartzea bizikidetza bermatzeko eta pertsona horiek guztiek dakarten aberastasuna baloratzeko, bai eta hirian haien eskubideak betetzen direla bermatuko duten politikak garatzeko ere.

Las administraciones públicas jugamos un papel importante no solo en la prevención y en la defensa de multitudes minorizadas, sino también a la hora de proteger y promocionar valores de igualdad e inclusión. Por ello creemos necesario que independientemente de las diferencias ideológicas y estrategias de las fuerzas que componen el Pleno, nos comprometamos todas a garantizar la convivencia y a valorar la riqueza que aportan todas estas personas y a desarrollar políticas que garanticen que se cumplen estos derechos en la ciudad.

Euskadiko Gorroto Gertakariei buruzko 2021eko Txostenaren arabera, gorroto-delituak % 15 igo ziren iaz Euskadin, eta 277 izan ziren guztira. Horietatik gehienak (% 58,5) arrazistak edo xenofoboak izan ziren. Azpimarratu behar da gehien areagotu ziren delituak orientazio eta identitate sexualarekin lotutakoak izan zirela (% 46 gehiago).

Según el Informe de Incidentes de Odio de Euskadi 2021 los delitos de odio aumentaron un 15% el año pasado en Euskadi, hasta registrarse un total de 277, de los cuales la mayoría (un 58,5%) tuvieron un carácter racista o xenófobo,. Algo a resaltar es que los delitos que más aumentaron fueron los relacionados con la orientación y la identidad sexual (un 46% más).

Esan bezala, Txostenak 2021ean erregistratutako 277 gorroto-delitu jasotzen ditu. Horietatik, 162 motibo arrazista edo xenofoboengatik egin ziren, eta, 2020. urtearekin alderatuta, gehien areagotu

El informe recoge 277 delitos de odio registrados en 2021, de los que 162 se cometieron por motivos raciales o xenófobos, siendo los que más crecieron con respecto a 2020 fueron los relacionados con la orientación

zirenak sexu-orientazioarekin eta sexu-identitatearekin lotutakoak izan ziren: guztizkoaren % 26,3 (73). Tipologia hori da bigarren kausarik ohikoena.

Espainiako Estatuan, Barne Ministerioak ere antzeman du gorroto-delituek goranzko joera izan dutela. Testuinguru horretan, gero eta udalerri gehiagok inbertitzen dute LGTBI arloko baliabideetan, aholkularitzan, gizataldeetan eta instalazioetan. Komunitate horrek eremu guztietan duen presentzia eta ikusgarritasuna handitzen ari da, eta, aldi berean, gaur egun, hainbat azterlanen arabera, komunitate horretako pertsonen aurkako zaurgarritasuna eta erasoak ere areagotzen ari dira.

Begien bistakoa dirudi horren inguruko politika espezifikoak beharrezkoak direla, gizarteak horiei buruz duen ezagutza-beharrari erantzuten diotenak. Gainera, komunitate zabal hori gizarteratzeko, zeharkako gaietan ere eragin behar da, besteak beste, enpleguan, etxebizitzan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, osasun-zerbitzuak, e.a.

Horregatik guztiagatik, Elkarrekin Donostia taldeak honako ebazpen proposamen hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin:

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Estatuko Gobernuari Trans pertsonen berdintasun benetakoa eta eraginkorra ziurtatzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Legearen izapideen atzerapenekin bukatzeko, eta haiek bizkortzeko.

2. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari izapidetu dezala, ahalik

e identidad sexual, que suponen el 26,3% del total (73). Siendo esta tipología la segunda causa más común.

En el Estado Español, desde el ministerio del interior también se ha advertido una tendencia alcista los delitos de odio. En este contexto, son cada vez más los municipios que invierten en recursos, asesoramiento, equipos humanos e instalaciones en materia LGTBI. La presencia y visibilización de esta comunidad en todas las esferas está aumentando y a la vez, actualmente y según distintos estudios la vulnerabilidad y las agresiones hacia personas de esta comunidad de personas también.

Parece evidente que se hacen necesarias políticas específicas al respecto, que respondan a la necesidad de conocimiento de la sociedad sobre ellas. Además, para la inserción de esta amplia comunidad se ha de incidir en cuestiones transversales en ámbitos como el empleo, la vivienda, la educación, servicios sociales, acceso a servicios de salud, etc.

Por todo ello el grupo Elkarrekin Donostia presenta para ser debatida en el Pleno la siguiente:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno del Estado a poner fin a los retrasos de la tramitación de la Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI y a acelerar su tramitación.

2. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno Vasco a tramitar para su

eta lasterren onar dadin, Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Legearen aldaketa, bai eta Euskadiko LGTBI kolektiboaren gizarte-berdintasunari eta diskriminazioaren aurkako lege-proposamen bat ere.

3. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari emakumeen erabateko inklusioa eta emakumeen eta gizonen bizikidetza bermatzen dituzten bizikidetza-balioak eta tokiko politikak sustatzeko, bereziki beren sexualitateengatik edo bestelako ezaugarriengatik oraindik ere minorizatuta dauden komunitateen kasuan.

4. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hitzeman dezala zeharkako ikuspegi bat aplikatuko duela, ardatz intersekzional batean finkatuta eta aniztasuna defendatzeko eta sustatzeko politikak bultzatuta bere sailetan. Berdin kultura edo kirol ekitaldiak diseinatzeari dagokionez ere, bai eta etxebizitzarekin, enpleguarekin edo gizarte-zerbitzuekin lotutako funtsezko zerbitzuak eskuratzeari dagokionez ere. Beste erakundeekin sinatzen dituen hitzarmenetan ere ikuspegi hori bera aplikatuko du.

Donostia, 2022ko urriaren 25a

Izpta.: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramailea".

aprobación a la mayor brevedad posible la modificación de la Ley vasca de no Discriminación por Motivos de Identidad de Género y de Reconocimiento de los Derechos de las Personas Transexuales así como una propuesta de Ley de Igualdad Social y Contra la Discriminación del colectivo LGTBI en Euskadi.

3. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno Municipal a promover tanto valores de convivencia como políticas locales que garanticen la plena inclusión y la convivencia de las mujeres y hombres, especialmente de comunidades que por sus sexualidades o características siguen estando minorizadas.

4. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno municipal a comprometerse a aplicar una visión transversal, con un eje interseccional y con políticas de defensa y promoción de la diversidad en sus diferentes departamentos, así como a la hora de diseñar eventos culturales o deportivos, en el acceso a servicios fundamentales relacionados con la vivienda, el empleo o los servicios sociales. Así como a aplicarlo en los convenios que se firmen con otras entidades.

Donostia, 25 de octubre de 2022

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**2. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**2. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**2. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**2. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN**

**DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**3. Donostiako hiri-mugikortasun sostengagarria hobetzeko PP taldeak aurkeztutako ebazpen-proposamena.**

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluaren babesean, Donostiako hiri-mugikortasun jasangarria hobetzeko beharrari buruzko EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, Politika Orokorreko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Duela urtebete, 2021eko Politika Orokorreko Udalbatzan, ebazpen-proposamen bat aurkeztu genizuen, Donostian hiri-mugikortasun jasangarria hobetzeko eta Donostiako premiekin bat datorren mugikortasun-plan bat osatzeko.

365 egun geroago, proposamen hori inoiz baino beharrezkoagoa da, eta planteatutako puntuetako biri ezetz esan zeniguzuen arren (hiriko puntu estrategikoetan disuasio-aparkalekuak sortzea […] eta Amarako autobus-geltokia hiriarteko autobusen abiapuntu eta helmuga gisa berrerabiltzearen egokitasuna baloratzea, horrela, hirira ibai ondotik sartzeko errepideetan auto-ilarak saihesteko), denborak arrazoia eman digu.

Egia da orain dela urtebete beste 2 puntuen alde bozkatu zenutela (lehenbailehen aurkeztea Hiriko Mugikortasun

**3. Propuesta de resolución presentada por el Grupo PP para mejorar la movilidad urbana sostenible de San Sebastián.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno de Política General la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre la necesidad de mejorar la movilidad urbana sostenible de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

Hace un año, en Pleno de de Política General de 2021, les presentamos una propuesta de resolución para mejorar la movilidad urbana sostenible en San Sebastián y redactar un plan de movilidad acorde a las necesidades de San Sebastián.

365 días después esa propuesta es más necesaria que nunca y el tiempo, pese a que nos dijeron que no a dos de los puntos planteados (la creación de aparcamientos disuasorios en puntos estratégicos de la ciudad (…) y valorar la idoneidad de reutilizar la estación de autobuses de Amara como otro punto de partida y llegada de los autobuses interurbanos y así evitar los atascos en los accesos a la ciudad por el río), nos ha dado la razón.

Si bien es cierto que hace un año votaron a favor de los otros 2 puntos (presentar en el menor plazo de tiempo posible, un Plan de

Jasangarrirako Plan bat, hiriak dituen erronka berriekin bat datorrena, eta mugikortasun-sistema jasangarri, seguru, unibertsal eta lehiakor bat diseinatzea, bideragarritasun ekonomikoaren, ekitate sozialaren, osasunaren eta ingurumen-kalitatearen beharrak orekatuko dituena), baina dena ezerezean geratu da, edo, hobeto esanda, hiria eta mugikortasuna etengabeko zirkulazio-kaos bihurtu dira. Donostiako mugikortasuna suntsitu duzue, arazo bat sortu duzue lehen ez zegoen tokian; eta arazo horri «Datorren Donostia» deitu diozue.

Movilidad Urbana Sostenible acorde a los nuevos retos a los que se enfrenta la ciudad, y diseñar un sistema de movilidad sostenible, seguro, universal y competitivo que equilibre las necesidades de viabilidad económica, equidad social, salud y calidad ambiental), todo se ha quedado en nada, o mejor dicho todo, la ciudad y la movilidad se han convertido en un permanente caos circulatorio. Han destrozado la movilidad de San Sebastián, generando un problema donde no existía, un problema que han llamado “Datorren Donostia”.

Zoritxarrez, gure hirian mugikortasuna da oraindik ere aurre egin beharreko erronka handienetako bat, zuek ez baitzarete gai izan horri erantzunik emateko. Donostiak etengabeko zirkulazio-kaosa jasaten du, hiri-mugikortasunaren kudeaketa okerrak eta inplikaturiko agenteekin kontrastatu gabeko erabaki inprobisatuek areagotzen dutena, ez baitira inolako estrategia baten araberakoak.

Desgraciadamente, la movilidad en nuestra ciudad sigue siendo uno de los grandes retos a los que nos enfrentamos y a los que no han sabido dar respuesta. San Sebastián sufre un continuo caos circulatorio, acrecentado por una gestión errónea de la movilidad urbana, por decisiones improvisadas y no contrastadas con los agentes implicados, que no obedecen a estrategia alguna.

Duela urtebete esan genuen, eta urtebete geroago berriro diogu: Hiriko Mugikortasun Jasangarriaren Plana «plan estrategiko bat da, hirietan eta aldirietan pertsonen eta enpresen mugikortasun-beharrak asetzeko diseinatua dagoena, bizi-kalitate hobea lortze aldera. Lehendik dagoen plangintzan oinarritu behar da, eta integrazio-, partaidetza- eta ebaluazio-printzipioak hartu behar ditu kontuan».

Lo dijimos hace un año y lo repetimos un año después, un Plan de Movilidad Urbana Sostenible es “un plan estratégico diseñado para satisfacer las necesidades de movilidad de personas y empresas en las ciudades y sus alrededores para una mejor calidad de vida. Se debe basar en la planificación ya existente y debe tener en consideración los principios de integración, participación y evaluación”.

Hiri Mugikortasuneko Plan bat «jarduera multzo bat da, hiri baten barruan joan-etorrietarako modu jasangarriagoak (oinez ibiltzea, bizikletak eta garraio publikoa) ezartzea helburu duena; hau da, hazkunde ekonomikoa, gizarte-kohesioa eta ingurumenaren defentsa bateragarri egingo dituzten garraiobideak ezartzea helburu

Un Plan de Movilidad Urbana es “un conjunto de actuaciones que tienen como objetivo la implantación de formas de desplazamiento más sostenibles (caminar, bicicletas y transporte público) dentro de una ciudad; es decir, de modos de transporte que hagan compatibles crecimiento económico, cohesión social y defensa del medio ambiente, garantizando, de

duena, horrela, herritarrei bizi-kalitate hobea bermatzeko».

Hiri-eremuetan irisgarritasuna hobetzeko eta mugikortasun eta garraio jasangarria eskaintzeko ekintza-multzo bat, hiri bizia eta guztiontzat atsegina lortzeko.

2022ko urriaren 25ean, helburu horretatik oso urrun dago Donostia.

Errealitatea oso bestelakoa da, eta zuek zarete horren erantzule.

Hiriko Mugikortasun Plana ez da inolako zentzurik gabeko edo norbaiti une jakin batean eta haren interesen arabera komeni zaion bat-bateko debekuen edo erabakien multzo bat.

Duela urtebete esan genuen, eta ebazpen-proposamen honetan berriro diogu: gure hiriaren etorkizuneko mugikortasunak zeharkako 5 ardatz izan behar ditu: bidegorriak, oinezkoentzako guneak, disuasio-aparkalekuak, hobekuntzak Dbus zerbitzuetan eta metroaren intermodalitatea. Donostia hiri atsegina bihurtzea da helburua.

Hori dela eta, Talde Popularrak honako hau aurkezten du:

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Datorren Donostiaren inguruan hartutako erabakiak lehengoratzeko, hala nola ibilgailuak hirigunera sartzea galaraztea, Zubieta eta San Martin kaleen noranzkoa aldatzea, eta autobusen gurutzaketak eta biraketak saihestea Easo zein Urbieta kaleen eta Askatasunaren etorbidearen amaieran.

esa forma, una mejor calidad de vida para los ciudadanos”.

Un conjunto de acciones destinadas a mejorar la accesibilidad en las zonas urbanas y proporcionar una movilidad y transporte sostenible para conseguir una ciudad viva, amable y para todos.

San Sebastián, a 25 de octubre de 2022, dista mucho de alcanzar ese objetivo.

La realidad es bien distinta y ustedes son responsables de ello.

Un Plan de Movilidad Urbano no es un conjunto de prohibiciones, decisiones improvisadas sin ningún sentido, o según convenga a alguien en un momento puntual y según sus intereses.

Lo dijimos haca un año y lo mantenemos hoy aquí en esta propuesta de resolución: la futura movilidad de nuestra ciudad debe pasar por 5 ejes transversales: bidegorris, peatonalizaciones, parkings disuasorios, mejoras en los servicios Dbus y la intermodalidad del metro. Hacer de San Sebastián una ciudad amable.

Es por lo que el Partido Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a revertir las decisiones adoptadas en Datorren Donostia como impedir el acceso de los vehículos al centro de la ciudad, el cambio de sentido de las calles Zubieta y San Martín, evitar los cruces y giros de los autobuses en el final de la calle Easo, Urbieta y Avenida.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Donostiako mugikortasun-eragile nagusiekin eta alderdi politikoekin elkarrizketa-prozesu bat irekitzeko, Mugikortasun Plan hori defendatzeko eta horren inguruan partaidetza-prozesu bat abian jartzeko, era horretan, bertan ikuspegi eta hobekuntza desberdinak txertatu ahal izateko. Elkarrizketa-prozesu garden bat abian jartzea ere eskatzen dugu, herritarrei ere irekia egongo dena.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio hiriaren eta donostiarren premietara egokitutako mugikortasun-sistema bat diseina dezala. Joan-etorriak optimizatuko dituen sistema bat, ibilgailu pribatuaren zentzuzko erabilera sustatuko duena, oinezkoen eta bizikleten joan-etorriak lehenetsi eta hobetuko dituena, garraio publikoa hobetuko duena eta energia-kontsumoa zein ingurumen-inpaktua murriztuko dituena.

4. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Donostiako puntu estrategikoetan disuasio-aparkaleku berriak jartzeko plan bat egin dezala, Donostiara iristen diren turistek eta bisitariek aukera izan dezaten euren ibilgailuak aparkaleku horietan aparkatu eta hiriaren erdialdera garraio publikoan iristeko.

Donostia, 2022ko urriaren 25ean.

Borja Corominas Fisas,
Alderdi Popularreko bozeramailea”.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a abrir un proceso de diálogo, consulta y consenso con los principales agentes de la movilidad donostiarra y los partidos políticos para defender ese Plan de Movilidad y empezar un proceso de participación en el que se puedan introducir diferentes puntos de vista y mejoras. Un proceso de diálogo transparente y abierto también a la ciudadanía.

3. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a diseñar un sistema de movilidad acorde a las necesidades de la ciudad y de los donostiarras. Un sistema que optimice los desplazamientos, promueva el uso racional del vehículo privado; priorice y mejore los tránsitos peatonales y ciclistas; mejore el transporte público; y disminuya el consumo energético y el impacto ambiental.

4. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a elaborar un plan para albergar nuevos aparcamientos disuasorios en puntos estratégicos de la ciudad de San Sebastián con el fin de que los turistas y visitantes que llegan a San Sebastián tengan la posibilidad de aparcar sus vehículos en estos aparcamientos y acceder al centro de la ciudad en transporte público.

En San Sebastián, a 25 de Octubre 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Partido Popular”.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**3. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**3. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**3. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**4. PP taldeak aurkeztutako ebazpen-proposamena, segurtasun- eta bizikidetza-arloko hiri-itun bat idazteko.**

“Talde popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua oinarri, EBAZPEN-PROPOSAMEN hau egiten du, Donostiak segurtasunaren arloko hiri-itun bat izan dezan, Politika Orokorrari buruzko Osoko Bilkuran aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Bizikidetza eta segurtasuna oinarrizko eskubideak dira, eta ezinbesteko baldintza, gure herritarren bizi-kalitatea bermatzeko. Segurtasuna da herritarren lehentasuna, eta segurtasuna bermatzeak izan behar du gobernatzen dutenen lehen helburua.

Gure hirian gero eta segurtasun falta handiagoa dago, eta Donostiako leku askotan giroa arrarotzen ari da; hori dela eta, gure hiria jadanik ez da ezagutzen genuen hiri seguru hori (delinkuentziari dagokionez). Halaxe adierazten dute donostiarrek, eta halaxe sumatzen da gure kaleetan. Segurtasunik eza areagotu denez gero, gauzak argi adieraztea eta jardutea da gure betebeharra.

Donostiarren elkarrizketetan egunero entzuten dira “ezintasuna”, “segurtasunik eza” eta “zigorgabetasuna” hitzak, eta esku hartu beharra daukagu kontu honetan.

Ostalariek eta merkatariek diote eguna kalean edaten eta kontsumitzen igarotzen duten pertsona-taldeek larderia eta mehatxuak erabiltzen dituztela haien kontra. Saltokietan egunero izaten dira lapurretak. Adinekoak, lapurtuko dietelakoan, bakarrik

**4. Propuesta de resolución presentada por el Grupo PP para la redacción de un pacto de ciudad en materia de seguridad y convivencia.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno de Política General la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, para que San Sebastián cuente con un pacto de ciudad en materia de seguridad.

JUSTIFICACIÓN

La convivencia y la seguridad son derechos fundamentales y condición indispensable para garantizar la calidad de vida de nuestros ciudadanos. La seguridad es la primera prioridad de los ciudadanos, y garantizarla, debe ser el primer objetivo de quienes gobiernan.

La creciente inseguridad en nuestra ciudad, el enrarecimiento del clima en muchos puntos de San Sebastián está haciendo que nuestra ciudad deje de ser una ciudad segura (de delincuencia), como la hemos conocido. Así lo manifiestan los donostiarras y así se percibe en nuestras calles. Ante este incremento de la inseguridad tenemos la obligación de poner “blanco sobre negro” y actuar.

Impotencia, inseguridad e impunidad son palabras que se escuchan a diario en las conversaciones de los donostiarras y debemos tomar cartas en el asunto.

Los hosteleros y comerciantes hablan de intimidación y amenazas por parte de grupos de personas que pasan el día en la calle bebiendo y consumiendo. Los robos en comercios se suceden a diario. Las personas mayores tienen miedo a salir o volver a casa solos ante el temor

Donostiako turismo-ereduari buruzko eztabaida pil-pilean dago eta gaur, orain, Udal Gobernuak berak ere behartuta ikusi du bere burua “turismoak hirian duen eragin negatiboa” onartzera. Gaur, orain, hiriko zonalde berriak “eremu ase” izendatzeaz hitz egiten da, hotel berriak eraikitzeko lizentziei muga jartzeaz, edo, besteak beste, Donostiaren “karga ahalmenaz”. Zentzu honetan, Udal Gobernuak iragarri du ikerketa bat abiatuko duela, hotelez gainezka dauden eremuak zeintzuk diren zehazteko eta horien izendapena dekretatu ahal izateko. Halaber, taberna dentsitate handiko kale jakin batzuen egoerari buruzko azterlan bat ere egiten ari dela jakinarazi da, ostalaritza establezimenduak instalatzeko ordenantzaren eremu saturatuetan sartzeko helburuarekin. Eta beti ere hedabideen arabera, eremu bakoitzean hirugarren sektoreko erabileren % 25 baino gehiago ez egoteko neurriak zehaztuko ditu lan horrek.

“Egoeraren diagnostikoan sakondu behar da”, esan zuen Eneko Goia alkateak ustez egitekoak diren lana aurkeztean, eta gaineratu zuen Hirigintza Sailak badituela hainbat eremutako “hotelen kopuruari buruzko datuak eta etxebizitza turistikoen kopuruarekin gurutzatu behar dituela”. Alkatearen hitzetan, izan ere, “oreka bat egotea komeni da”. Alegia, ia zortzi urteren ondoren Udal Gobernuak onartu du nolabait Donostian turismo-jarduerak desorekak eragiten dituela. Azterketez gain, ordea, ikusteko dago egoera hori hobetzeko neurrien irismena eta, batez ere, eraginkortasuna. Neurriren bat hartzen bada, noski. Gaur-gaurkoz ez baita bat bera ere ezagutzen, Donostia Turismoak Donostiako herritarren artean turismoaren eragin positiboak nabarmentzeko agindutako

ello.

El debate sobre el modelo turístico de San Sebastián está muy presente y hoy el propio Gobierno municipal se ha visto obligado a admitir “el impacto negativo que el turismo produce en la ciudad”. Hoy, ahora, se habla de la declaración de nuevas zonas de la ciudad como “zonas saturadas”, de la limitación de las licencias para la construcción de nuevos hoteles, o de la capacidad de carga de San Sebastián, entre otras cuestiones. En este sentido, el Gobierno municipal ha anunciado la puesta en marcha de un estudio para determinar cuáles son zonas saturadas de hoteles y poder decretar esta declaración. Asimismo, se ha anunciado que se está realizando un estudio sobre la situación de determinadas calles de alta densidad con el objetivo de incluirlas en las zonas saturadas de la ordenanza reguladora de la instalación de establecimientos hosteleros. Siempre según los medios de comunicación, se definirán medidas para que en cada zona no se supere el 25 % de usos terciarios.

“Hay que profundizar en el diagnóstico de la situación”, afirmó el alcalde Eneko Goia al presentar el trabajo que presuntamente se va a realizar, y añadió que el departamento de Urbanismo dispone de datos sobre el número de hoteles de diferentes zonas y que estos datos debe cruzarlos con el número de viviendas turísticas. Y es que, en palabras del alcalde, “conviene que haya un equilibrio”. Es decir, casi ocho años después, el Gobierno municipal ha reconocido que la actividad turística en San Sebastián genera desequilibrios. Sin embargo, más allá de los estudios, queda por ver el alcance y, sobre todo, la eficacia de las medidas que se adoptarán para mejorar esta situación. Claro, si es que se toma alguna medida. Ya que a día de hoy no se conoce ninguna, salvo la campaña publicitaria, encargada por Turismo de San Sebastián, para destacar ante la ciudadanía

publizitate-kanpainaz gain. Kanpaina horrek, jakina, ez du zerikusirik turismo eredu honen ondorio negatiboak zuzentzearekin, baizik eta donostiarren pertzepzio gero eta zabalduagoari aurre egitearekin.

los efectos positivos del turismo. Obviamente, esta campaña no tiene nada que ver con corregir las consecuencias negativas de este modelo turístico, sino con combatir esta percepción cada vez más extendida entre la ciudadanía donostiarra.

Gainera, Udal Gobernutik mezu kontraesankorrak aditzen jarraitzen dugu. Herritarren kezkarekin konektatu nahi den bitartean, horretarako neurriak iragarriz, errealitatea ukatzen jarraitzen da, hiria pisu turistikoz gainezka egotetik urrun dagoela baieztatzen denean bezala, etxebizitza horiek hiriko higiezinen parkearen % 7ra iristen ez direla argudiatuz. Argudio maltzurra eta ahula da, turismoak lurraldean sortzen dituen inpaktuak edo ondorioak erabat lokalizatuak direlako, eta proportzio hori auzo jakin batzuetara ekartzen badugu % 25 baina gehiago izatera heltzen delako, Parte Zaharrean kasu.

Además, desde el Gobierno municipal seguimos escuchando mensajes contradictorios. Mientras que se quiere conectar con la preocupación ciudadana, anunciando medidas para ello, se sigue negando la realidad, como cuando se afirma que la ciudad está lejos de la saturación de pisos turísticos, argumentando que estas viviendas no llegan al 7 % del parque inmobiliario urbano. Se trata de un argumento malicioso y débil, ya que los impactos o consecuencias del turismo en el territorio son totalmente localizados, y si trasladamos esta proporción a determinados barrios, como es el caso de la Parte Vieja, llegan a superar el 25 %.

Gaur egun indarrean dagoen turismo-politikak ondorio larriak, eta zenbaitetan atzeraezinak utzi ditu: etxebizitza eta oro har prezioak garestitzea; bizilagunak auzo jakin batzuetatik kanporatuak izatea; merkataritza-gentrifikazioa; ondarearen galera... Honek guztiak beharrezkoa egiten du, are urgentziazkoa, norabide aldaketa bat. Donostiako 2017-2021 Turismoko Zuzendaritza Planak “turismoaren garapen orekatua eta jasangarria lortzea” zuen erronka estrategiko nagusitzat. Baina agerikoa da erronka edo helburu hori ez dela bete; alderantziz, urtetik urtera egoerak okerrera egin du. Eta okerrera egin du, udal gobernuak ez duelako planak jasotakoa betetzeko inolako neurririk hartu.

La actual política turística ha dejado graves e irreversibles consecuencias, como el encarecimiento de la vivienda y de los precios en general, la expulsión de la ciudadanía de determinados barrios, la gentrificación comercial o la pérdida del patrimonio. Todo esto hace necesario, incluso urgente, un cambio de dirección. El Plan Director de Turismo 2017-2021 de San Sebastián tenía como principal reto estratégico la consecución de un “desarrollo equilibrado y sostenible del turismo”. Pero es evidente que este reto u objetivo no se ha cumplido; al contrario, año tras año, la situación ha empeorado. Y ha empeorado porque el Gobierno municipal no ha adoptado ninguna medida para cumplir con lo recogido en el plan.

Turismoaren Munduko Erakundeak (TME) honela definitzen du turismo jasangarria:

La Organización Mundial del Turismo (OMT) define turismo sostenible como:

> El turismo que tiene plenamente en cuenta las repercusiones actuales y futuras, económicas, sociales y medioambientales para satisfacer las necesidades de los visitantes, de la industria, del entorno y de las comunidades anfitrionas.

Hau da, benetan jasangarria izan dadin, guztiz kontuan hartu behar dira jarduera-turistikoaren gaur egungo eragin-ekonomikoak, -sozialak eta -ingurumenekoak, baina baita (edo bereziki) etorkizunekoak ere. Helburu edo helmuga estatiko bat baino gehiago, jasangarritasuna prozesu bat da. Inpaktuen eta ondorioen etengabeko jarraipen bat egitea eskatzen du, jarduerak aldiro eragiten dituen arazoak saihesteko eta emendatzeko beharrezko prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartzea ahalbidetuko duena. Zentzu honetan, turismo jasangarriak "karga ahalmena" kontzeptua mahaigaineratu du, eta Turismoaren Munduko Erakundeak (TME) honela definitzen du karga ahalmena:

> Ingurune fisiko, ekonomiko edo soziala kaltetu gabe eta bisitarien esperientzia murriztu gabe, aldi berean, leku turistiko bat bisita dezaketen pertsonen gehieneko kopurua.

Eta ondorengoa gehitzen du:

> Bisitarien kopurua eta baliabideentzat kaltegarriak diren egoerak gertatu gabe lor daitekeen garapen-maila modu neurgarrian ezartzen saiatzen da. Ingurune naturalarentzat eta ingurune artifizialarentzat kalte fisikorik eragin gabe, tokiko komunitatearentzat kalte sozial, kultural eta

> El turismo que tiene plenamente en cuenta las repercusiones actuales y futuras, económicas, sociales y medioambientales para satisfacer las necesidades de los visitantes, de la industria, del entorno y de las comunidades anfitrionas.

Es decir, para que sea realmente sostenible hay que tener muy en cuenta los impactos económicos, sociales y ambientales actuales de la actividad turística, pero también (o especialmente) los impactos del futuro. Más que un objetivo o una meta estática, la sostenibilidad es un proceso. Requiere un seguimiento continuo de los impactos y consecuencias que permita adoptar las medidas preventivas y correctoras necesarias para evitar y aumentar los problemas que ocasionalmente genera la actividad. En este sentido, el turismo sostenible introduce el concepto de "capacidad de carga" que la Organización Mundial del Turismo (OMT) define como:

> Número máximo de personas que pueden visitar un lugar turístico al mismo tiempo sin causar daños físicos, económicos o sociales, ni una disminución de la experiencia de los visitantes.

Y añade:

> Trata de establecer de forma medible el número de visitantes y el nivel de desarrollo que se puede alcanzar sin que se produzcan situaciones perjudiciales para los recursos. Es la capacidad que puede conseguirse sin causar daños físicos al medio natural y al medio artificial, sin causar perjuicios sociales, culturales y económicos a la comunidad local o sin

ekonomikorik eragin gabe edo garapenaren eta kontserbazioaren arteko oreka justuari kalterik egin gabe lor daitekeen gaitasuna da.

perjudicar el equilibrio justo entre desarrollo y conservación.

“Pertsona dago Donostiako turismoaren garapen ereduaren erdigunean”. Horrela irakurtzen dugu oraindik indarrean dagoen Turismo Planean: “Herritarra eta bisitaria kokatzen dira ereduaren erdigunean, garapen turistikoko politikaren hartzaile eta aktore nagusi diren aldetik (herritarrarentzat ona dena ona da turistarentzat)”. Donostiak, ordea, aspaldi utzi zion pertsona turismo ereduaren erdigunean izateari, eta hala izaten jarraituko du baldin eta, esan bezala, gaurko turismo-politikaren norabidea erabat aldatzen ez bada.

La persona se sitúa en el centro del modelo de desarrollo turístico de San Sebastián. En el Plan de Turismo aún vigente leemos que la ciudadanía y las personas visitantes se sitúan en el centro del modelo como principales receptoras y actoras de la política de desarrollo turístico (lo que es bueno para el ciudadano o ciudadana es bueno para el o la turista). En San Sebastián, sin embargo, hace tiempo que la persona dejó de ser el centro del modelo turístico, y esto seguirá siendo así, si, como se ha dicho, no cambia radicalmente el rumbo de la política turística actual.

Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal taldeak honako ebazpen proposamen hau egiten du:

Por todo ello, el Grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio txosten bat egitea turismo jarduera jasotzeko hirigintzari dagokionean (hotelak, pisu turistikoak...) Donostiako hiriaren, eta, batez ere, auzo bakoitzaren ahalerari eta mugei buruz, kontzentrazioa eta horrek herritarrengan sor ditzakeen afekzio negatiboak saihesteko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que elabore un informe que recoja la actividad turística, en relación con el urbanismo (hoteles, pisos turísticos...), sobre la potencialidad y las limitaciones de la ciudad de San Sebastián y, sobre todo, de cada barrio la ciudad, para evitar la concentración y las afecciones negativas que esta pueda generar en la ciudadanía.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio txosten bat egitea Donostiako hiriaren, eta, batez ere, auzo bakoitzaren karga turistikoaren ahalmenari buruz eta karga ahalmena aztertzeko aldagaien lanketa alderdi politikoen, kaltetutako eremuetako bizilagunen eta sektoreko eragileen artean egitea.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que elabore un informe sobre la capacidad de carga turística de la ciudad de San Sebastián y, especialmente, de cada barrio de la ciudad, y a que el trabajo sobre las variables de análisis de la capacidad de carga se realice junto con los partidos políticos, los vecinos y vecinas de las zonas afectadas y los agentes del sector.

3.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Parte Zaharra bezala, beste auzo batzuk (Erdialdea, Gros, Egia, Antigua) “eremu aseak” izendatzeko behar diren ordenantzak eta arau urbanistikoak aldatzea, eta izendapenak ekarriko dituen baldintzak betearazteko beharrezko neurriak hartzea.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, al igual que se ha hecho en la Parte Vieja, modifique las ordenanzas y las normas urbanísticas que se precisen para que otros barrios de la ciudad (Centro, Gros, Egia, Antiguo) puedan declararse como zonas saturadas. Asimismo, le insta a que adopte las medidas necesarias para el cumplimiento de las condiciones que conlleva esta declaración.

4.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio “eremu ase” edo “joan-etorri handiko espazio” izendatutako auzoetan lantaldeak eratzea, tokian tokiko bizilagunekin eta eragileekin batera, beharrezko erabakiak hartu eta ekintzak abiarazteko (mugikortasuna, fluxuen kudeaketa, komunikazioa, ondarea...).

4.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a constituir grupos de trabajo, junto con los vecinos, vecinas y agentes locales, en los barrios declarados como zonas saturadas o espacios de gran afluencia, para tomar decisiones y poner en marcha las acciones que resulten necesarias. (movilidad, gestión de flujos, comunicación, patrimonio...).

Donostian, 2022ko urriaren 25ean

San Sebastián, a 25 de octubre de 2022

Reyes Carrere Zabala
EH  Bildu udal taldeko bozeramailea”.

Reyes Carrere Zabala
Portavoz del grupo municipal EH Bildu”.

**8. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**8. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA, ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) PSE-EE, (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO EN SEGUNDA VOTACIÓN POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) PSE-EE, (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS EN CONTRA: 11 – (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**9. EAJ/PNV Taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena, Donostia zientziaren ezagutzaren eta ikerketaren hiri izateari buruzkoa.**

“DONOSTIAKO UDALBATZARI

**9. Propuesta de resolución presentada por el Grupo EAJ/PNV relativa a Donostia como ciudad de la ciencia, el conocimiento y la investigación.**

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

Jon Insausti Maisterrenak, EAJ-PNV udaltaldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluaren babesean, honako ebazpen-proposamen hau aurkeztu du, Donostia zientziaren, ezagutzaren eta ikerketaren hiri gisa aztertzeari buruzkoa, Politika Orokorrari buruzko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Zientziari eta ezagutzari lotutako eragileen sare garrantzitsu baten egoitza da Donostia, eta etorkizunera begira tinko jarrita ditu begiak. Etorkizun ekonomiko hori, ezinbestean, zientzian, ezagutzan eta ikerketan oinarritutako industrien eta jarduera ekonomikoen garapenaren eskutik etorriko da. Errealitate hori oso kontuan hartzen du Donostia 2030 Plan Estrategikoak, eremu hori zehazten baitu gure hiriaren etorkizunerako apustu nagusietako bat egiteko esparru gisa.

Eskala globalean jokatzen den partida bat dela kontuan hartuta, Donostiak pisuzko kartak ditu partida horretan. Azken asteetako albiste batzuek errealitatea argiago ikusten lagunduko digute: izan ere, errealitate hori oso ezaguna eta hurbilekoa denez, arriskua dago benetan daukan garrantzia ez ikusteko, eta garrantzia hori funtsezkoa da hiriaren etorkizunerako.

Duela gutxi, Alemaniako multinazional bateko goi-zuzendari batek gure hiria bisitatu du, eta horrek esan nahi du aukera asko daudela Miramongo parke teknologikoan Viralgen - Bayer konpainiaren instalazio berriak ezartzeko. Hori gertatuko balitz, gure hiriak aukera itzelak izango lituzke eremu biosanitarioan. Eremu biosanitario horri esker, datozen urteetan, Donostiak «Bioiraultza» bat biziko du eta iraultza

Jon Insausti Maisterrena, portavoz del grupo municipal EAJ-PNV, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno sobre Política General la siguiente propuesta de resolución, relativa a Donostia como ciudad de la ciencia, el conocimiento y la investigación.

JUSTIFICACIÓN

Donostia, sede de un importante tejido de agentes y actores ligados a la ciencia y el conocimiento, tiene los pies firmemente plantados en el futuro. Un futuro económico que vendrá, inevitablemente, de la mano del desarrollo de las industrias y actividades económicas basadas en la ciencia, el conocimiento y la investigación. Una realidad de la que es plenamente consciente el Plan Estratégico Donostia 2030, que establece este ámbito como una de las principales apuestas para el porvenir de nuestra ciudad.

Donostia tiene cartas de peso a la hora de disputar una partida que se juega a escala global. Un puñado de ejemplos recientes nos ayudará a ver más clara una realidad que por su familiaridad y cercanía a veces corre el riesgo de no ser suficientemente apreciada en su verdadera importancia, crucial para el porvenir de la ciudad.

Recientemente, la visita a nuestra ciudad de un alto directivo de una multinacional alemana ha servido para poner sobre el tapete las inmensas posibilidades que las nuevas instalaciones de Viralgen - Bayer en el parque tecnológico de Miramon abren a nuestra ciudad en el campo biosanitario, llamado a vivir en los próximos años una ´Biorrevolución´ en la que Donostia está singularmente bien situada.

horretan bereziki ongi kokatuta egongo da hiria.

Horrez gain, Donostia International Physics Centerreko (DIPC) instalazioak handituko dira, Basque Culinary Centerreko bigarren eraikina egingo da eta Eskuzaitzeta industrialdean Mubil elektromugikortasun-zentroa eraikitzen ari dira. Gipuzkoako industrialde handiena da Eskuzaitzeta (Naturklima ere bertan dago) eta Zardoya Otis enpresa ere bertara lekualdatu da duela gutxi.

Además, proyectos como la ampliación de las instalaciones del Donostia International Physics Center (DIPC), el segundo edificio del Basque Culinary Center o el centro de electromovilidad Mubil que se construye en el polígono industrial de Eskuzaitzeta, el polígono industrial más grande de Gipuzkoa que también es emplazamiento de Naturklima o la recién trasladada Zardoya Otis.

Ospatzekoa da, halaber, EHUk bere jakintza-eremua zabalduko duela, ikerketa kuantikorako erabiliko den eraikin batekin. Proiektu horrek Gipuzkoako unibertsitate-campusa indartuko du. Gainera, gogorarazi behar dugu Udal honen aurreikuspenen artean dagoela Talent House II eraikitzea.

También es de celebrar que la UPV / EHU ampliará su campo de conocimiento con un edificio que se destinará a la investigación cuántica. Este proyecto reforzará el campus universitario de Gipuzkoa. Además, cabe recordar que está entre las previsiones de este Ayuntamiento la construcción del Talent House II.

Proiektu horiek guztiak indarguneak dira zientziaren eta ezagutza aplikatuaren arloan maila gorenean lan egiten duten Donostiako enpresa eta erakundeen zerrenda zabal eta askotarikoaren barruan.

Todos estos proyectos son puntos fuertes dentro del amplio y variado listado de empresas e insituciones donostiarras que trabajan al más alto nivel en el campo de la ciencia y el conocimiento aplicado..

"Bioiraultza", konputazio kuantikoa, elektromugikortasuna, ikerketa gastronomikoa, zibersegurtasuna… joko-eremu horietan, gure hiria indarra hartzen ari da nazioartean, eta esparru horiek gero eta pisu handiagoa izango dute datozen hamarkadetan. Abian dauden proiektuak eta garapen-fasean daudenak ikusita, zientziarekin eta ezagutzarekin lotutako eragile ugari biltzen dituen hiri bat dela kontuan hartuta, esan liteke Donostiak etorkizun handia eraiki duela azken urteotan.

´Biorrevolución´, computación cuántica, electromovilidad, investigación gastrómica, ciberseguridad… Son campos de juego en los que nuestra ciudad pisa ya con fuerza a escala internacional, y que van a adquirir un peso creciente en las próximas décadas. A la vista de los proyectos ya en marcha y los que están en estado de gestación, en una ciudad que alberga una considerable concentración de agentes ligados a la ciencia y el conocimiento, se podría decir que Donostia ha construido mucho futuro en los últimos años.

Hori guztia ez da ustekabekoa izan, Donostiako gizarteak, bertako enpresek,

Nada de todo esto es casual, sino el resultado de un esfuerzo sostenido durante décadas a

langileek eta gizarte- eta erakunde-eragileek hainbat hamarkadatan egindako ahalegin jarraitu baten emaitza baizik. Ahalegin horri esker, 30 ezagutza- eta ikerketa-erakunde baino gehiago ditugu hirian; besteak beste, 4 unibertsitate-campus, 4 ikerketa- eta bikaintasun-zentro, 6 teknologia-zentro sektorial edo I+G+Bko 4 enpresa-unitate.

cargo de la sociedad donostiarra, de sus empresas, trabajadores y agentes sociales e institucionales. Un esfuerzo que nos permite contar con más de 30 instituciones de conocimientos e investigación en la ciudad, ente las que se cuentan 4 campus universitarios, 4 centros de investigación y excelencia, 6 centros tecnológicos sectoriales o 4 unidades de I+D+I empresariales, entre otros.

Hedapen horrek, etorkizunera begira ez ezik, gure egungo ekonomian ere pisu handia du, gure hirian I+G+Bn lan egiten duten 5.500 pertsona baino gehiago baitaude (horrek esan nahi du 1.000 pertsonatik 26 esparru horietan aritzen direla), baita 240 milioi euroko inbertsioa ere, hau da, hiriko BPGren % 2,2, EAEko (% 1,9), Espainiako (% 1,2) eta Europako (% 2) batezbestekoen gainetik.

Este despliegue no sólo mira al futuro, sino que ya se traduce en un importante peso en nuestra economía actual, con más de 5.500 personas dedicadas al I+D+I en nuestra ciudad (lo que supone que 26 de cada 1.000 personas se dedican a estos campos), así como una inversión de 240 millones de euros, lo que supone un 2,2% del PIB de la ciudad, por encima de la media vasca (1,9%), española (1,2%) y europea (2%).

Artikulu zientifikoen ekoizpena da gizarte bateko ezagutzarekin eta ikerketarekin lotutako jardueren garapen-maila ebaluatzeko termometro nagusietako bat eta ekoizpen-maila horrek datu adierazgarriak ematen ditu Donostiaren kasuan. Donostian 2.300 artikulu zientifiko ekoitzi dira, EAEn egindakoen herena. Ekoizpen horri esker, Nature aldizkari ospetsuaren Index 2018 Science Cities izeneko zerrendako 200 hirien artean dago Donostia.

La producción de artículos científicos, uno de los principales termómetros a la hora de evaluar el grado de desarrollo de las actividades ligadas al conocimiento y la investigación en una sociedad, arroja datos reveladores en el caso de Donostia. 2.300 artículos científicos producidos en Donostia, un tercio de los realizados en la CAV. Una producción que permite situar a Donostia entre las 200 ciudades que integran el Nature Index 2018 Science Cities elaborado por la prestigiosa revista ´Nature´.

Pedro Miguel Etxenikek, Donostia International Physics Centerreko presidenteak, elkarrizketa batean adierazi zuen pandemiak agerian utzi duela hezkuntza zientifikoa oso garrantzitsua dela erabaki zuzenak hartzeko eta inork gu manipulatzen ez uzteko. Diskurtso sinplisten eta demagogikoen aurkako antidoto ona da hori. Gainera, zientzian oinarritutako hiri baten alde egiteaz gain, hirian zientzia ere sustatzen da.

Pedro Miguel Etxenike, presidente del Donostia International Physics Center, afirmó en una entrevista que “la pandemia ha puesto en evidencia la importancia de una educación científica para tomar decisiones correctas y no dejarse manipular”. Es este un buen antídoto contra los discursos simplistas y demagógicos. Abogando, además, por una ciudad de ciencia, pero también con ciencia en la ciudad.

Horregatik guztiagatik, gure taldeak aurkezten du honako

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Donostiako Udalbatzak berretsi egiten du Donostiarekiko konpromisoa, jakintzaren, zientziaren eta ikerketaren hiri den aldetik, eta hirian garatzen diren proiektu guztiak babesten ditu, eremu hori funtsezkoa baita gure hiriaren etorkizunerako; aldi berean, Udalak babesa ematen die gure hirian proiektuak abian edo aurreikusita dituzten eta zientzian, ezagutzan eta ikerketa aplikatuan eragin zuzena duten administrazio publikoei eta enpresa-eragileei, proiektu horiek ahalik eta lasterren gauzatu eta burutzeko.

2. Donostiako Udalbatzak Miramongo Parke Teknologikoa handitzea bultzatzeko eskatzen die inplikatutako administrazio publiko guztiei.

Donostia, 2022ko urriaren 25a

Jon Insausti Maisterrena
Donostiako EAJ-PNV udal taldeko bozeramailea".

Es por todo ello que nuestro grupo presenta la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián reafirma su compromiso con Donostia como ciudad del conocimiento, la ciencia y la investigación, y expresa su apoyo a cuantos proyectos se desarrollen en la ciudad dentro de este ámbito, crucial para el futuro de nuestra ciudad, al tiempo que insta al conjunto de administraciones públicas y agentes empresariales con proyectos en marcha o previstos en nuestra ciudad y con incidencia directa en el campo de la ciencia, el conocimiento y la investigación aplicada a ejecutarlos y culminarlos con la mayor premura posible.

2. El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al conjunto de las administraciones públicas implicadas a impulsar la ampliación del Parque Tecnológico de Miramon.

Donostia / San Sebastián, 25 de octubre de 2022

Jon Insausti Maisterrena
Donostiako EAJ-PNV Udal Taldearen bozeramailea".

**9. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN**

**DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

---------------

10. **EAJ/PNV taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena, Anoeta kirol-hiria berritzeko inbertsioak kudeatzeko sozietate publiko bat sortzeari buruzkoa.**

"DONOSTIAKO UDALBATZARI

Jon Insausti Maisterrenak, EAJ-PNV udal-taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluaren babesean, honako ebazpen-proposamen hau aurkeztu du, Anoeta Kirol-Hiria berritzeko inbertsioak kudeatzeko sozietate publiko bat sortzeari buruzkoa, Politika Orokorrari buruzko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Anoeta Kirol-Hiriak hainbat azpiegitura ditu kirol-diziplina ezberdinak praktikatu zein garatzeko, eta Donostiako, Gipuzkoako eta EAEko kirolariei eta taldeei ematen die zerbitzua. Astero, milaka herritar joaten dira Kirol-Hirira, bai kirola egitera, bai instalazio horietan lehiatzen diren klubei laguntzera.

Instalazio horietan maiz egiten dira tokiko, udalez gaindiko eta lurraldez gaindiko kirol-probak. Estatuko kirol-ekitaldiak ere ohikoak dira.

**10. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo EAJ/PNV, relativa a la creación de una sociedad pública para la gestión de las inversiones para la renovación de la ciudad deportiva de Anoeta.**

"AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

Jon Insausti Maisterrena, portavoz del grupo municipal EAJ / PNV, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno sobre Política General la siguiente propuesta de resolución, relativa a la creación de una sociedad pública para la gestión de las inversiones para la renovación de la Ciudad deportiva de Anoeta.

JUSTIFICACIÓN

La Ciudad Deportiva de Anoeta comprende una serie de infraestructuras para la práctica y el desarrollo de diferentes disciplinas deportivas que dan servicio a deportistas y a equipos de Donostia, Gipuzkoa y CAV. Semanalmente, miles de ciudadanos se acercan a la Ciudad Deportiva, bien a practicar deporte o bien a apoyar a los clubs que compiten en estas instalaciones.

Son multitud las pruebas deportivas de ámbito local, supramunicipal y supraterritorial que se celebran en estas instalaciones de manera frecuente. Incluso, también son frecuentes los eventos deportivos de nivel estatal.

Anoeta Kirol-Hiriko instalazioak zabalak eta askotarikoak direnez, tokiko, udalez gaindiko eta lurraldez gaindiko kirol-proba ugari egiten dira instalazio horietan.

Dada la amplitud y variedad de las instalaciones que contiene la Ciudad Deportiva de Anoeta, son multitud las pruebas deportivas de ámbito local, supramunicipal y supraterritorial que se celebran en estas instalaciones de manera frecuente.

Kirol-erabilera horiez gain, Anoeta Kirol-Hiriko azpiegiturek kultura- eta musika-ekitaldi ugari egiteko esparru gisa ere balio dute, eta, horrekin batera, lurraldeko eta autonomia-erkidegoko kirol-federazio askoren egoitzak ere bertan daude kokatuta.

Además de estos usos deportivos, las infraestructuras de la Ciudad Deportiva de Anoeta sirven de marco para la realización de numerosos eventos culturales y musicales y, junto a ello, sirven como sede de numerosas federaciones deportivas territoriales y autonómicas.

Anoeta Kirol-Hiriak instalazio hauek ditu:

La Ciudad Deportiva de Anoeta integra las siguientes instalaciones:

Anoetako miniestadioa, Antonio Elorza belodromoa, Udal Kiroldegia, Atano III.a frontoia, Txuri Urdin izotz-jauregia, Karmelo Balda frontoia, Paco Yoldi kiroldegia, Arte Martzialen Teknifikazio Zentroa, Ilunbe Arena eta Anoetako udal-estadioa.

Miniestadio de Anoeta, Velódromo Antonio Elorza, Polideportivo Municipal Gasca, Frontón Atano III, Palacio de Hielo Txuri Urdin, Frontón Carmelo Balda, Polideportivo Paco Yoldi, Centro de Tecnificación de Artes Marciales, Ilunbe Arena y Estadio Municipal de Anoeta.

Donostiako Udalak badaki azpiegitura horietako askok inbertsio handiak behar dituztela une honetan, bai kirol-instalazioak berritzeko eta eguneratzeko, bai instalazio horietarako irisgarritasuna eta bertako energia-eraginkortasuna hobetzeko, besteak beste.

El Ayuntamiento de Donostia es consciente de que muchas de las citadas infraestructuras requieren en estos momentos de inversiones cuantiosas, tanto para la renovación y actualización de las instalaciones deportivas como para la mejora de la accesibilidad a las mismas y su eficiencia energética, entre otras necesidades.

Era berean, Donostiako Udala konturatzen da instalazio horien erabilera udalez gaindikoa dela, eta uste du gainerako erakundeen lankidetza behar dela Anoeta kirol-hiria modernizatzeko behar diren inbertsio garrantzitsuak kudeatzeko.

El Ayuntamiento de Donostia es también consciente de la naturaleza supramunicipal del uso de estas instalaciones y está persuadido de la necesidad de contar con la colaboración del resto de instituciones para gestionar las importantes inversiones que se requieren para abordar la necesaria modernización de la Ciudad Deportiva de Anoeta.

Gogoratu behar da Donostia dela Europa mailan herritarrek kirol gehien egiten duten hirietako bat: herritarren % 73k egiten du kirola, Donostia Kirolaren datuen arabera. Hori Kirol Txarteleko harpidedun-kopuruan islatzen da, 45.000 baitira dagoeneko.

Horri gehitu behar diogu Anoeta Kirol-Hiriko irisgarritasuna nabarmen hobetuko dela, hain zuzen ere trenbide-pasabidea martxan jartzen denean, topoaren maiztasunak hobetuko direlako. Horrez gain, Anoetako tren-geltokia bera ere hobetu beharra dago, erabiltzaileak hori asko eskatzen ari baitira.

Horregatik guztiagatik, gure udal-taldeak honako ebazpen-proposamen hau aurkeztu du:

1.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen die, Udalarekin batera, sozietate publiko bat sortzen parte har dezatela, Anoeta Kirol Hirian dauden kirol- eta kultura-azpiegiturak berritzeko eta modernizatzeko beharrezkoak diren inbertsioak kudeatzeko, eta garatu beharreko jardueren finantzaketan ere parte har dezatela.

2.- Donostiako Udalbatzak Kirol Kontseilu Gorenari eskatzen dio sozietate publiko horrekin lankidetzan jardun dezala Anoeta kirol-hiriko azpiegiturak berritzeko eta modernizatzeko obrak finantzatzen.

Donostia, 2022ko urriaren 25a.

Jon Insausti Maisterrena
Donostiako EAJ / PNV Udal Taldearen bozeramailea".

Cabe recordar que Donostia es una de las ciudad a nivel europeo en la que sus ciudadanos más deporte practican de manera habitual: un 73%, según los datos de Donostia Kirola. Algo que queda reflejado con el número de abonados a la Kirol Txartela, que son ya 45.000.

A esto debemos añadirle la mejora que la Ciudad deportiva de Anoeta va a tener en cuanto a su accesibilidad, yYa que las frecuencias del Topo se mejorarán una vez que entre en funcionamiento la pasante ferroviaria. Además de la mejora en la propia estación de Anoeta, algo muy demandado por sus usuarios.

Por todo ello, nuestro grupo municipal presenta la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que, en común iniciativa con el Ayuntamiento, participen en la creación de una sociedad pública para la gestión de las inversiones necesarias para la renovación y modernización de las infraestructuras deportivas y culturales ubicadas en la Ciudad Deportiva de Anoeta, así como en el financiamiento de las actuaciones a desarrollar.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Consejo Superior de Deportes a que colabore con la citada sociedad pública en la financiación de estas obras de renovación y modernización de las infraestructuras de la Ciudad Deportiva de Anoeta.

Donostia / San Sebastián. 25 de octubre de 2022.

Jon Insausti Maisterrena
Donostiako EAJ / PNV Udal Taldearen bozeramailea"

**10. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (8) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 1 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO SEIETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECIOCHO HORAS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**